

Euskara gabe ez gara.

AIARALDEKO IKASTETXEEN AGERRALDIA EUSKALGINTZAREN BABESAREKIN

Testuingurua

Jendartean aldaketa sakonak izan dira eta horren eragina ikas geletara heldu da. Euskalduntzea bera **arriskuan** dago. Gaur egun, ikastetxeok bakarrik ezinezkoa dugu ikasleak euskalduntzea eta egoera larria da. Eskola ibilbidea arrakastaz gauzatzeko ezinbestekoa da gure hizkuntza menderatzea, eta hau egun, kolokan jartzen ari da.

Egoeraren gordina plazaratu nahi dugu, **autokritika** eginez baina baita gizarte osoaren **inplikazioa** eskatuz, ezinbestekoa baita komunitateak eta instituzioek bat egitea bide honetan, bestela bide hau ustela izango da.

Euskararen egoera ez da nahi bezain baikorra, eta, askotan, eskolako notetan ere **makillatu** egiten da errealitatea, maila apalagoa baita eta zailtasunak baitaude.

Euskararekiko **atxikimendua** jaitsi egin da, ikasle, irakasle eta familien artean. Eskolaz kanpo euskararekin harremana eskasa da oro har aisialdian, harremanetan eta pantailetan. Norabidea zuzendu beharra urgentziazkoa da eta horretarako badugu zer eginik.

Zailtasunak handiak izan arren, ez diogu etsipenari leku egiten utzi behar. Orain da unea **elkarrekin** ekiteko, euskararen etorkizuna indartzeko eta biziberritzeko.

Gure konpromisoak

Ikastetxean euskara zeharkakoa eta lehentasunezkoa izan behar du eta horretarako beharrezko neurriak hartuko ditugu. Euskara erdigunean jarri eta era sistematikoan landuko dugu. Baita idazketa eta ahozkotasuna lantzeko monografikoak eta ekimenak zehaztu eta programazioan txertatuko ditugu.

Euskararekiko jarrera okerrak zuzentzeko bidea bilatu beharra dago. Atxikimendua eta lotura emozionala landu behar da ikastetxean bertan. Euskal kulturaren transmisioa indartzea beharrezkoa da. Lotura emozionala eta hiztun aktiboak izatea sustatu beharra dago.

Horregatik dekalogo hau* gure egiten dugu:

- 1- Hizkuntza gaitasunak eta joerak lantzeko ikasgai guztiak eta ikastetxeko jarduera guztiak hartuko ditugu kontuan.
- 2- Euskal hiztun aktiboak sortu nahi ditugu, ez dugu nahikotzat hartuko euskara irakastea.
- 3- Euskararen soziologia emango diegu ikasleei, hots testuinguruan jarri
- 4- Kulturartekotasuna hizkuntza eta kultura gutxituen ardatzetik landuko dugu.
- 5- Euskararen erabilera sustatu eta babestuko duten espazioak sortuko eta lanketa sistematiko eta sakona egingo dugu
- 6- Euskaldun izatearen harrotasuna landuko dugu.
- 7- Curriculumean euskal dimentsioa jorratuko dugu.
- 8- Euskararen Herria, Euskal Herria, kontuan hartzen duten baliabideak erabiliko ditugu. Euskal curriculumarekin erreferente izango dugu.
- 9- Euskarazko kulturgintzaren zaleak sortzeko lan egingo dugu.
- 10- Euskara hezkidetzarekin batera landuko dugu zeharkakotasunez.

* [2024ko urrian Hernaniko Ikastetxeek plazaratutako dekalogoak]

Familiei

Gure ikasleek beharrezko konpetentzietan lehena euskara behar dute izan bestela aurrera egiterik ez dago, baina hori ezin daiteke lortu euskararekiko harremana eskolara mugatzen baldin bada. Horregatik familien inplikazioa ezinbestekoa eta determinantea izango da.

Honakoa eskatzen diegu familiei:

- 1.-Seme alabek euskararekin harremana izatea bermatu eskolatik kanpo ere
- 2.-Euskaraz kontsumitu: aisialdian, kulturen, hedabideetan...
- 3.-Euskararekiko interesa eta aldekatasuna azaldu
- 4.-Euskararen aldeko ekimenak babestu eta parte hartu
- 5.-Garrantzia eman etxean hizkuntzari eta euskarazko materialak izan bertan

Instituzioei

Egoeraren larriaren aurrean instituzioak inplikatzeko ezinbestekoa da. Hezkuntza eta euskara politikak garatzeko hezkuntza profesionalen eta hezkuntza komunitatearen iritzia kontuan hartzea eskatzen dugu eta elkarlanerako bideak sendotzea. Baliabide gehiago behar ditu euskalduntzeak eta hezkuntzak, eta hori udal aurrekontuetan islatu beharra dago.

Euskararekiko instituzioak eta agintariak eredu garri izan behar dute. Hauek gure eskakizun zehatzak:

- 1.-Hezkuntzara bideratutako udal aurrekontua aurrekontu osoaren % 5 izatea
- 2.-Euskara sistematikoki bultzatzea, helburu zehatz eta mailakatuarekin
- 3.-Euskara zehar lerroa izatea Udalean, egiten den orok euskararen irizpidea presente izan dezan
- 4.-Kanpaina puntualak ez dira eraginkorrak, iraunkorrak eta epe luzekoak behar dira
- 5.-Helduen euskalduntzea guztiz doakoa izatea bermatzea
- 6.-Euskarazko aisialdi doako eskaintza bat bermatzea eta kirolean entrenatzaileak euskaldunak izatea bermatzea
- 7.-Etorri berrien euskalduntzean laguntzeko baliabide eta doako laguntza programa sendo bat eratzea ikastetxeekin elkarlanean
- 8.-Etorri berrientzako harrera protokoloak eratzea euskararen ikuspuntutik
- 9.- Haur, nerabe eta gazteentzako eskaintza euskaraz izan behar da.
6. Hizkuntza portaeretan gurasoak eredu izan behar dute
- 10.- Ikastetxeetara zerbitzuak edo ekintzak bideratzean, espazio euskalduna direla errespetatzea eta hori ez urratzea

Amurrión, Aiaraldea, 2025eko ekainaren 30ean

Sinatzaileak:



Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua · Zabaleko Ikastetxea · Zaraobe Institutua · Mendiko Eskola · Amaurre Ikastetxea · Aresketa Ikastola · Artek Gure Ama Ikastetxea · Urduña Herri Eskola · Arrankudiagako Eskola · Okondo Eskola · Audio Ikastola · Latorro Ikastetxea · Areta Herri Eskola

Ekimenari babesa ematen diote:



Aiaraldeko Ekintzen Faktoria · Aiaraldeko AEK · Basalarrina Euskaltzaleen Bilgunea · Udaberria Euskaltegia · 24 euskara elkartea · Audioko Udal Euskaltegia · Mendiko Eskolako IGE · Zabaleko Eskolako IGE · Kirikino · Latorroko Hezkuntza Komunitatea · Arrankudiagako IGE · Artziniegako IGE